

Bihotz bero

ODOL GIROA nagusi izaten da neguero. Guraize, aihotz, zerrote, motozerra... inauskaiak zorrotz! Epaia emateko prest epaikiak. Epaile kaskarin gehiegi. Buru beroko kasko asko. Bihozgabe bihozgabetaileak.

Inausten diren zuhaitzek bihotza non duten ez dakigu. Sentitzen dutelako susmoa gero eta nabarmenagoa dela dioen ikerketa ugari dago. Bihotza badute. Arima, espiritua, gogo... Ez dakit nola deituko zaion behin betiko topatzen zaienean.

Zuhaitzek bihotza badute, haltzak (*Alnus glutinosa*) izan ezik. Haltzari bihotza aspalditik ukatua diogu... Gure bihozgabekeria azaleratzen baitu! Mozten denean zuri-zuria den zura gorritu egiten da. Geure odola gogora ekartzen digu. Kontinente osoko sineskeria da: haltza sorginduta dago. Ezin ulertu dugu, eta odola, eta, beraz, bihotza badituela agerikoa duenez, bizkarra eman eta, azkar asko, bihotzik ez duela kantatzen diogu. Moztu berrian hartzen duen gorri hori, argiak moteldu eta desagerrarazten du. Kolore aldaketa horien harira, Europako iparraldekoenek berpiztearen ikurtzat zuten. Emakume eta gizaseme, denok haltzetik eta lizarretik (*Fraxinus excelsior*) gatzozela diote han.

Gutxien uste denean haltzaren bihotzarekin topo egingo duzu. Erresonantzia kutxarrik gabeko



JAKOBA ERREKONDO

Goian, haltz enbor moztu berria, gorri-gorria. Eskuinean, haltzeko azpila, zuri-zuria.



J. E.

lehenetako gitarra elektriko trinkoak, Fender Stratocaster mitikoak, 1954an, lizarrezko gorputza zuten. Gero, 1956tik aurrera, berriz, haltzekoa. Haltzaren zurez egindako ikatza nitratoarekin nahasi eta bolbora egiten dugu; kalitaterik onenak omen. Ogi labea berotzeko egur ona da, gar handikoa. Lantzeko gozoa da egur hori, eta besteak beste, Mezkitzen eta Oizen "txoklak" deitzen dituzten eskalapoiak, sukaldako ontziteria, kirtenak, eskulturak, jostailuak eta abar egiteko erabili izan da.

Ura non, haltza han. Ura den tokian hazten da, eta urpeko egiturak egiteko, *Fagus sylvatica* pagoarekin batera, haltza da zurik onena. Airetik eta argitik gordez gero, luze irauten du: zubiei eta ur gaineko beste edozein erakuntzari eusteko zimendu asko haltza dira.

Gosea pitzuz amaitzeko, gaztak haltzaren ezpalez ketzen dira. ■



blogetan!

BLOG IZARREN BILA

Bozkak emateko epea ireki da Urtarrilak 27 - Otsailak 16

Bozkatzeko bi modu:

- Webgunearen bidez erregistratuta
- Norberaren twitter kontutik

Bozkatu gehien atsegin duzun bloga

Antolatzailea

azkue

www.blogetan.com

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekia | ARGIA kolaboratzeko aukera

Laguntzailea

argia